

## TAILERRA: GAZTEEN ERABILERAREN KORAPILOA BEGI-BISTAN

### 1) Proiektuaz dakizunetik eta entzun duzun azalpenetik zer iruditu zaizu emaitza deigarriena? Zer interesgarriena? Zer beharrezkoena? Zergatik?

- Hautu pertsonalari garrantzia ematen saiatu behar dugu. Euskal guneak sortu behar ditugu.
- Gazteen artean bihotz euskalduna pizte izan daiteke bidea. Transmisio afektibo hori faltan botatzen dugu makro-mikro-indibidual eskeman. Atxikimendua
- Maila indibiduala gazteek nabarmendu dute. Zergatik ez zaio garrantzirik eman (gure ustez), euskaraz egiteko hautua hor egiten bada?
- Solaskidearen garrantzia. Erabilera bultzatzeko, momentu bakoitzeko ingurunea da garrantzitsuena.
- Faktore sorta zabala, nahiko ongi identifikatua. >> Planifikaziorako lagungarri.
- Faktore batzuk ez daude gure eragin esparruan (makro)
- Gazteen maila indibidualean kokatu dute garrantzia.>> Eurengandik hasi.
  - Ikuspegi indibidualista >> ikuspegi kezkarria.
  - Eskubideekin lotzen.
- Hizkuntza gaitasunaren ikuspegi makroa (hizkuntza enpatia) falta. Zuzentasun ezari beldurra (maileguak,...)
- Hitzun kopurua maila makroan.
- Adituen eta gazteen bateratasuna
- Adituetatik hasi izana deigarri.
- Azterketa baliagarria, ikuspegi soziolinguistikoa aurre-ezagutzarik ez dutenei zabaltzeko. Kontzientzia sortu.
- Matrize osoa begi-bistan izatea ondo.
- Adin tarteari buruz...
  - a. 12 gazteegiak?
  - b. 9 urterekin erdararako aldaketak sumatzen dira.
  - c. 30 urterekin zaharregiak.
  - d. Adin-tartea gehiago mugatuz emaitza zehatzagoa izango litzateke eta esku-hartzea eraginkorragoa.
- Indibidualismorako joera oso markatua. Garaiaren ezaugarri eta adinaren ezaugarri. Norberaren hautua>> eskubideak...
- Adituek eta gazteek azpimarratu dituzten aldagaiak ia berdinak dira.
- Maila makroa hutsunea. Eragiteko zailena.
- Adin-tartea deigarria: zabala.
- Matrizea erabilgarria
- Prozesua interesgarria.
- Deigarria:
  - gazte eta adituen artean ondorio berdinetara iristea.

- Gazteen maila indibidualerako joera.
- Interesgarriena:
  - Fenomeno konplexu bezala izendatzea.
  - Hezitzaileentzako (hezkuntza ez-formalekoak) baliagarriagoa izateko (horretara bideratuta sortu izana).
- Beharrezkoena:
  - Erabileran eragiteko tresnak eskaintzea
  - Kanpo faktoreak kontuan hartzeko eredu finkatzea.

## 2) Zure ustez, aurrera begira, azterketa honek zer bide irekitzen dizkigu? Nola irudikatzen duzu lan honen aplikaziorako urratsa? Zer falta da eguneroko praktikara eramateko? Norentzat izan liteke erabilgarri?

- Erreferente diren pertsonak identifikatu eta aktibatu.
- Eskema hori erabilia eragiteko plangintzak egin. Proiektu pilotoak.
- Gazteen arteko erabileraren azterketa zehatzak
- Aginteari aurre egiteko joerak aztertu.
- Ingurune mikro-sozialen egituratzea.
- Faktoreetan alderdi emozionala faltan sumatu da >> pertsonaz ahaztuta?
  - Garai batean ikasitako kantak...
- Egoera erreal bakoitzean faktore bakoitzean erronkak finkatzeko erabili daiteke. Denean eragitea ezinezkoa dela asumituz frustrazioa saihesteko balio du erronka txikiak jartzearenak.
- Beharrezkoa da; haur eta nerabeekin lanean dihardutenek beste hainbat gaitan formazioa jasotzen dute (hezkidetzak, garapen iraunkorra,...).
- Eragiteko ahalmena jabetzeko erabilgarri. Neurria hartzeko.
- Euskara elkarteetan herri-auzoen diagnostikoa egiteko gidoi gisa erabil liteke. Hausnarketa nondik hasi erabakitzean oinarri.
- Gaiaz taldean hausnartzeko.
- Balorazioetarako eskema moduan.
- Laginean kontuan hartu diren eragile/agenteeak erabil dezatela eskema.
- Estrategiak sortzeko: martxan dagoenetik abiatuz.
  - Espazioak antolatu
  - Adin tartekak
- Begiraleak eta begirale-ikastaroak estrategikoak izan daitezke.
- Baliabideak behar dira maila indibidualean, talde mailan egindakoari jarraipena emateko.[behar bereziak... interesa dute baina ez HIZK. Beraiengandik kanpo dagoen zerbaitekin.]
- Eskoletan erabilgarri ?

- Non eta nola eragin hizkuntzan ikastetxean? Euskaldunen auto-irudia sustatu. Euskaraz bizi, Bai euskarari,... Ereduek sortu eta hartzaileen aukerak argitu.
- Auto-estimatiak tira eginda hizkuntza gaitasun, jarrera eta portaeratan sakondu (>18)
- Esku-hartzeak bideratzeko adin-tarte bakoitzari “dagozkion” aldagaiak definitu.
- Aplikaziora jauzia >> Ereduek. (helburuak finkatzetik >> aldagaien baloraziora)
- Maila arteko elkarlanerako...
- Gazteen ikuspuntua ematen du eta ez bakarrik espezialistena, era kualitatiboan, gainera.
- Aplikaziorako urratsak:
  - Lehenik eta behin, eredu hau barneratu ondoren tokian-tokiko azterketa bat egin.
  - Tresnak zabaldu, horrelako azterketak egin ahal izateko.